

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Jendaurrean jartzea zabor bilketako zerbitzu publikoaren tasaren 2026ko bigarren seihilekoari dagokion errolda, eta kobratzeko aldia hastea

Zabor bilketako zerbitzu publikoaren tasaren 2026ko bigarren seihilekoari dagokion errolda egin da eta, honen bidez, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, interesa dutenek aukera izan dezaten aztertzeko eta, hala badagokio, egokitzen jotzen dituzten alegazioak eta erreklamazioak aurkezteko.

Alegaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onetsitza joko da, eta hasiera emango zaio kobratzeko aldiari.

I. Ordaintzeko epea.

A) Borondatezko epea: 2026ko irailaren 16tik azaroaren 17ra.

B) Epe exekutiboa: 2026ko azaroaren 18tik aurrera epe exekutiboa hasiko da, eta epe exekutiboko errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko tokia eta modua.

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta dutenek ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontu berberetik ordaintzen badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenean udaletxean eskatu ahal izango dute, edo diru sarrera egin udalaren dirubilketa kontuetan, Kutxabank finantza entitatean.

Ediktu honen bidez, erroldako likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, bat etorritik Arabako Zergen Foru Arau Orokorraren 98.3 artikuluan xedatutakoarekin.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak izanik, berraztertzeko errekurtsioa jarri ahal izango da alkatearen aurrean, ordainketa egiteko borondatezko epean edo epe hori amaitu ondorengo egunetik hilabete igaro baino lehen.

Lapuebla de Labarca, 2026ko irailaren 3a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ